

ELGOIBARKO 2024ko EGUTEGIA OSATZEKO XVI. ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO UDALA Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan.

HELBURUA: 2024ko egutegia osatuko duten Elgoibarko argazkiak hautatzeko lehiaketa deitzea.

PARTE-HARTZAILEAK: Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek, herrikoek zein kanpokoek, izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.

GAIA: Gaia honakoa izango da: "Elgoibarko gizarte, kultura eta kirol arloetako elkarte eta taldeek antolatutako ospakizunak eta jarduerak". Argazkiak Elgoibarren egindakoak izan beharko dira, 2022ko urritik 2023ko urrira bitartean.

ARGAZKIAK: Argazkiak etzanak/ horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez, 2 Mb-ko pisua izango dute, eta gehienez, 10 Mb-ekoa. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira. Gailu mugikorrez ateratako argazkiak ere onartuko dira.

Argazkiak Elgoibarren kokatuak izan behar dute, eta argazki bakoitzaren kokapen zehatza adierazi beharko da.

Lanak originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Lehiakideak izango dira aurkeztu dituzten obren erantzule, baita lanaren gain hirugarrenen aurkez lezaketen edozein erreklamazioren aurrean ere, hala nola, egiletzari, irudi eskubideei, originaltasunari, antzekotasunari, kopiari, etc., dagozkienak.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira bereizkeria, arrazakeria, homofobia, indarkeria edo sexismoa iradokitzen duen argazki oro.

LAN KOPURUA: Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Sei argazki aurkezteko aukera egon arren, gehienez ere, pertsona bakoitzeko 3 argazki sarituko dira.

LANEN AURKEZPENA: Lanak CD batean edo emailez aurkeztuko dira, eta gutxieneko erresoluzioa 300 ppp-koa izango da. Argazki bakoitza herriko zein lekutan eta noiz egindakoa den zehaztu beharko da. Argazkietan, lehenengo edo erdiko planoan, norbait azaltzen bada, pertsona horren baimen esplizitua aurkeztu beharko da, eta egileak izango du erantzukizuna erreklamazioren baten aurrean.

LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:

Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:

- Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira: **"Elgoibarko egutegia 2024" Argazki Lehiaketa**. Barruan egilearen datuak jarriko dira (izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, eta argazkiaren izenburua, lekua eta data). Helbidea: Aita Agirre kulturenea (Euskara Saila), Aita Agirre plaza 3, 1. solairua, 20870 Elgoibar.
- Emailez, euskara@elgoibar.eus helbidera bidalita. Hemen ere aurreko datu guztiak azaldu beharko dira. Parte-hartzaileak baieztapen mezu bat jasoko du lehiaketan onartua dagoela jakinarazteko.

Argazkiak aurkezteko azken eguna: 2023ko urriaren 6a (egun hori barne).

Helbidea: Aita Agirre kulturenea (Euskara Saila), Aita Agirre plaza 3, 1. solairua, 20870 Elgoibar.

Helbide elektronikoa: euskara@elgoibar.eus

SARIAK: Epaimahaiak **hamahiru argazki** aukeratuko ditu, eta horietatik 12 egutegi handirako izango dira, eta bat egutegi txikirako, eta **Txankakua merkatari elkarteko dendetan gastatzeko 80 euroko bonuarekin sarituko du aukeratutako argazki bakoitzaren egilea**. Argazkiaren kalitateaz gain, egutegiari koherentzia eta gorputza emateko irizpideak ere hartuko dira kontuan.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



NGARRI

SARITUTAKO ARGAZKIEN ERABILERA:

Saritutako argazkiek 2023ko Elgoibarko Egutegia osatuko dute. Elgoibarko Udalak argazki irabazleak nahi dituen helburu guztietarako erabili ahal izango ditu, eta, hala, argazkiok nahi bezala egokitu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen formatu eta euskarri guztietan erabili ahal izateko, horretarako egileari inolako baimenik eskatzeko beharrik izan gabe.

EPAIMAHAIA: Epaimahaia Elgoibarko Udaleko eta Ongarri argazkilari elkarteko ordezkariak osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Lehiaketara aurkezten diren argazziek egutegirako eskatzen den adinako kalitaterik ez badute, antolatzaileek 2024ko egutegirako udal artxiboan dauden argazkiak argitaratzeko eskubidea izango dute.

SARI BANAKETA: Sariak egutegia aurkezten den egun berean banatuko dira. Ezinbestekoa izango da saritua edo ordezkoren bat sari banaketa ekitaldira bertaratzea.

IRABAZLEEN BERRI EMATEA

Elgoibarko Udalaren webgunean eta hedabideetan irabazleen berri emango da.

OINARRIAK ONARTZEA: Lehiaketa honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu beharko dira.